

PLaza

Karlistaldien irudiak karlisten ikuspegitik

II. Karlistaldiko 300 irudirekin argazki bilduma osatu dute Juan Pardok eta Juantxo Egaña

ARANTZAZU MUÑOZA
Donostia

II. Karlistaldia modu erraz eta atseginean erakusteko, 1872 eta 1876 bitarteko 300 bat argazki jaso dituzte Juan Pardok eta Juantxo Egaña *Historia fotográfica de la última Guerra Carlista* argazki liburuan (Txertoa). Haien helburua ez da karlistaldien historiaren liburu akademiko bat egitea, irakurlea irudien bidez II. Karlistaldira gerturatzea baizik.

Hamar bat urtez 1.000 argazki baino gehiago bildu dituzte, eta haietatik 300 hautatu libururako. Egaña, batez ere, alderdi estetikoa izan du kontuan argazkiak aukeratzeko orduan; Pardok, berriz, historiari dagozkion alderdiak edo dokumentalak aztertu ditu. Dena den, hasieratik garbi izan dute biek lanaren abiapuntua. Ez dute neutral jokatu: karlisten ikuspegitik osatu dute liburua. Argazki gehienetan, beraz, karlisten taldeko pertsonak agertzen dira. Baina badaude liberalak agertzen diren zenbait argazki ere.

Horrez gain, bada kontuan izan duten beste elementu bat argazkiak aukeratzean: kanpoko eta taldeko argazkiei eman diete lehentasuna. Hala ere, II. Karlistaldian poseko argazkiak dira nagusi eta, ondorioz, baita *Historia fotográfica de la última Guerra Carlista* liburuan ere. Eta horietako protagonista nagusia Karlos VII.a da. Juantxo Egaña azaldu duenez, horren guztiaren arrazoia argazkigintzaren agerpenarekin eta garapenarekin lotuta egon dai-



Etxarri Aranazko Simon Maiza, isilmandatari karlisten nagusia. BARON DE MONTEVILLA

«Argazkilarien artean bi emakume daude; hori sekulako aurkikuntza izan da, txunditu egin gaitu»

JUANTXO EGAÑA
ARGAZKILARIA

«Mutiko horiek ez daude hor uniforme jantzita argazkirako jarri zirelako; gerran parte hartzen zuten»

JUAN PARDO
HISTORIALARIA

teke: «I. Karlistaldiko irudi fotografiko oso gutxi daude; pertsonaiaren baten erretratuaren dagerrotipoak baino ez. Kontuan izan behar da 1860ko hamarraldian hasi zela sartzen argazkigintza hiri handietan. II. Karlistaldiaren garaian, berriz, argazkirik gehienak estudioetan ateratakoak dira, eta haietako asko enkarguz eginak».

Argazkirik gehienak bildumagileenak eta protagonisten familiartekoak dira. Beste asko artxiboetan, museoetan eta liburutegietan daude. Egaña eta Pardok bildu dituzten argazki gehienak, hala ere, inoiz inon argitaratu gabeak dira. Karlistaldiez zenbait lan eginak zituelako hasi zen Pardok, besteak beste, II. Karlistaldiko argazkiak biltzen. Egañari berriz, oro har XIX. mendeko argazkigintza interesatzen zaio: «Garai horretako Euskal Herriko argazkigintza azterten hasiz gero, nahitaez, karlistaldiekin egingo duzu topo». Biek aitortu dute lana nekeza eta geldoa izan dela, baina II. Karlistaldiko argazkiak topatzen jarraitzen dute oraindik ere: «Atzo bertan aurkitu genuen bat, Hondarribikoa, oso ederra, baina liburu honetan behintzat ezin sartu».

HILDAKORIK EDO ZAURITURIK EZ. Garai-ko beste gerrate edo gatazka batzuekin alderatuta, bada II. Karlistaldiko argazkietan ohikoa ez den zerbaite: ez da hildakorik edo zauriturik ageri. «Hori berezia da. Krimetako gerran edo Parisko Komunako matxinadan hildakoa ageri dira, eta zaurituak ere bai. Karlistaldietan, berriz, suntsitu zituzten argazki batzuen erreferentziak bakarrik daude. Viceko (Katalunia) Josep Mas i Serra argazkilaria Collformiceko hilketaren argazkiak atera zituen, baina gero desagerrarazi egin zituzten. Hori esa-

ten du, behintzat, argazkilaria berak, bere egunerokoan».

Leku guztietako argazkilarien argazkiak ageri dira liburuan. Baina Egaña eta Pardo Antonia Santos argazkilaria galiziarren eta Dolores Gil katalanaren izenek harritu dituzte gehien, ez baita ohikoa XX. mendearen bigarren erdira arte emakume argazkilaria topatzea: «Hori sekulako aurkikuntza izan da. Euskal Herrian XIX. mende amaierako argazkiren bat bada emakumeak aterea, baina 1872. urtean? Horrek txunditu egin gaitu», aitortu du Egaña.

Gainontzeko argazkilarien artean Jose Lejarreta, J. Hernandorena, Ferdinand Berillon, Charles Monney eta Ladislav Konarzewsky azpimarratu ditu. Konarzewsky Santa Cruz apaizari aterako argazkiak ezagunak dira: «Konarzewskyren birbilobak dio —hori Donibane Lohizunen bizi baita— birraitonak kontatzen zuela Santa Cruz apaizari ordaindu egin behar izaten ziola argazkiak ateratzeko, eta gero hark armak erosteko erabiltzen zuela irabazitako dirua».

Zenbait argazkitan umeak edo gaztetxoak dira protagonista. Batean, Karlos VII.aren seme Jakue ageri da dozena bat mutiko armadunek inguratutik: «Mutiko horiek ez daude hor uniforme jantzita argazkirako jarri direlako, gerran parte hartzen zutelako baizik», azaldu du Pardok. Haren ustez, liburuko argazkirik aipagarrienak ere mutiko bat du protagonista: Urduñako (Bizkaia) Nikolas turuta jotzailea. Eskuetan tximino bat dauka, eta aldamenean Engracio Colomer soldadua, pottoka bati helduta. «Tximino hori Karlos VII.ak mutikoari egin dako oparia da. Mutikoak aurrez lehoi bat oparitu ziolako eman zion tximinoa».



■ **Ofizial liberalak.** 1874ko setioan, Bilboko itsasadarra zaintzen ari dira itsas armada libereko bi soldadu. CHARLES MONNEY



■ **Bilboren bonbardaketa.** 1874ko otsailaren ziklo arratsan, karlistek Bilbo bonbardatu zuten lehen aldiz. CHARLES MONNEY



■ **Nagusi karlistak.** Los Hierro taldeko buruak. Gero Gaztelako zalditeria sortu zen talde horretatik.